

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

4959 18/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 12koa, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriena.

I

COVID-19arekin lotutako osasun-krisialdiaren bilakaerak mota guztietako neurriak hartzea eragin du, eta horien artean badaude batzuk, garrantzi eta intentsitate berezikoak: lan-arloko neurriak.

Espainiaren kasuan, gaixotasunaren hedapenaren ondorioz, hasiera batean osasun-agintariek neurriak hartu behar izan zituzten, eta, ondoren, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu behar izan zen, zeinak alarma-egoera deklaratu baitzuen COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko, eta horrek mugikortasuna eta jarduera ekonomikoa murrizteko neurri garrantzitsuak ekarri zituen berekin. Alarma-egoera, gainera, behin baino gehiagotan luzatu behar izan da. Geldiarazpen-neurri horien ondorioz, prebentzio-neurri espezifikoak ezarri ziren lan-prestazioan, esposiziopeko pertsonen kopurua eta esposizio-denbora murrizteko, eta, horretarako, jarduera jakin batzuk partzialki edo erabat eten ziren.

Larrialdi-egoera horri erantzuteko onartu zen, hain zuzen, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena, zeinaren II. kapituluan zenbait malgutasun-neurri ezarri baitziren. Haiei esker, enpresek eta langileek beren jarduera eten edo murrizteko legez aurreikusita zeuden mekanismoak arindu ahal izan ziren, eta, ondorioz, beharrezkoak ziren prestazio ekonomikoak eskuratzea ahalbidetu zen.

Adierazitako neurriek bi helburu zituzten:

a) Indarreko legediaren arabera aplikatzekoak diren lanaldia eteteko edo murrizteko prozedurak behar bezain arinak izateko mekanismoak ezartzea, eta, hartara, osasun-larrialdiko egoeraren ondorio sozioekonomikoek enpleguan ahalik eta inpaktu txikiena izango zutela bermatzea.

b) Langileen osasuna eta segurtasuna babestea, konfinamenduaren eta beste geldiarazpen-neurri batzuen bidez gaixotasunaren progresioa geldiaraziz eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako langile guztiei ordezko diru-sarrerak eskuratzeko aukera bermatuz.

Aipatutako neurri horiei guztiei martxoaren 27ko 9/2020 Errege Lege Dekretuan bildutako aurreikuspenak gehitu zitzaizkien (9/2020 Errege Lege Dekretua, Lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19aren ondorioak arintzeko). Besteak beste, arau horrek xedatzen du martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan aipatzen diren arrazoiek ezin dutela justifikatu lan-kontratuak azkentzea. Xedatzen du, orobat, aldi baterako kontratuen gehieneko iraunaldiaren zenbaketa etengo dela, bermatu nahi baita halako kontratuek ondorio guztiak sortzea hasieran aurreikusitako aldi osoan zerbitzuak emateari, kontratuarekin lotutako trebakuntzari eta enpresaren jarduerara egiten den ekarpenari dagokienez. Horri esker, sortu den larrialdi-egoerak ez du eragotziko enpresek beren baliabideak nahi duten bezala antolatzea. Neurri horrek berebiziko garrantzia du, Espainiako merkatuan soldatapekoen kopurua drastikoki gutxitu ez dadin; izan ere, aldi baterako kontratazioaren indizea handia da Espainian.

Azken batean, estrategia hori gai izan da osasun-larrialdiak sortutako egoera gainditu, eta enpleguaren eta enpresa-sarearen suntsiketa nabarmen geldiarazteko, eta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren zioen azalpenean jasotakoari jarraikiz, lagungarria izan da «egoera iragankor eta salbuespenezko honen ondorio negatiboak jasaten ari diren

enpresa kaudimendunak merkatutik ez ateratzeko», eta «enpleguak eta jarduera ekonomikoak jasango dituzten ondorio negatiboak gutxitzeko».

II

Behin hasierako helburua beteta eta salbuespenezko aldia igarota, ekonomia suspertu beharra dago progresiboki, eta, horretarako, zenbait sektore dinamizatu behar dira; hain zuzen ere, alarma-egoeraren esparruan adostutako konfinamendu- eta geldiarazpen-neurrien ondoriozko osasun-murrizketengatik, edo beste arrazoi batzuegatik, jarduera mugatuta izaten jarraitzen duten sektoreak.

Helburua, beraz, deskribatutako egoeraren aurrean neurritzko erantzuna ematea da, kontuan hartuta osasun-larrialdiak, geldiarazpen-neurriek eta mugek zer-nolako ondorioak ekarri dituzten enpresen jardueran eta lan-kontratuetan, eta, bereziki, soldata-errentetan. Horrez gainera, beste helburu bat da deskonfinamenduari eta jarduera ekonomikoa pixkanaka berrabiarazteko beharrari erantzutea, eta horrek sostengua, gizarte-arrazionaltasuna eta babesa emateko mekanismoak eskatzen ditu.

Aurreko guztiaz jabetzen dira gure herrialdeko ordezkariak handieneko enpresa-erakundeak –Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioa (CEOE) eta Espainiako Enpresa Txiki eta Ertainen Konfederazioa (CEPYME)– eta ordezkariak handieneko erakunde sindikalak –Langile Komisioak (CCOO) eta Langileen Batasun Orokorra (UGT)–.

Horregatik, errege lege-dekretu honetan bildutako neurriak hartzeko, funtsezkoak izan dira, batetik, gizarte-elkarrizketa eta, bestetik, eragile sozialek eta Gobernuak 2020ko maiatzaren 8an egindako akordioa –egun horretan, Lan Ministerioaren lehen mendeurrena ospatu zen–.

Hiru astez gogor negoziatu ondoren, neurri hauen bidez erantzun egokia eman nahi zaie enpresei, behar diren doikuntza dinamikoak egin ditzaten «normaltasun berrira» iristen laguntzeko, enplegua babesteko, eta bereziki langileak babesteko.

III

COVID-19arekin lotutako ezinbesteko kasu diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan daude araututa, non ezartzen baita zer jo behar den COVID-19arekin lotutako aldi baterako ezinbesteko kasutzat, kontratua eten edo lanaldia murriztu ahal izateari begira eta errege-lege dekretu horren 24. eta 25. artikuluetan araututa dauden lan-arloko neurri bereziak eskuratzeari begira.

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikulua arabera, COVID-19ak edo alarma-egoeraren deklarazioak eragindako jarduera-galerek zuzenean eragin dituzten kontratu-eteteak eta lanaldi-murrizketak aldi baterako ezinbesteko kasutzat hartuko dira, baldin eta behar bezala egiaztatzen bada honako hauek berekin ekarri dituztela: jarduerak etetea edo bertan behera uztea; publikoarentzat zabalik zeuden lokalak aldi baterako ixtea; garraio publikoa eta, oro har, pertsonen eta salgaien mugikortasuna murriztea; jarduerak ohi bezala garatzen jarraitzea modu larrian galarazten duen hornigairik eza; edo, bestela, plantilla kutsatuta egoteagatik aparteko eta presako neurriak hartu behar izan badira edo osasungintzako agintaritzak egindako dekretu baten bidez prebentziozko bakartze-neurriak ezarri behar izan badira. Halako kasuek Langileen Estatutuaren testu bateginaren 47.3 artikuluan jasotako ondorioak izango dituzte –testu bategina urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen; 47.3 artikulua 51.7 artikulura igortzen du–.

Hortaz, COVID-19aren ondoriozko ezinbesteko kasuen atzean dauden arrazoiak zehazki definitzeko, kanpoko premiazko arrazoi bat hartu da, zeinaren ondorio eta eremu zehatzak unean-unean erabakitzen baitituzte agintari eskudunek osasun publikoko arrazoiengatik. Horrek esan nahi du neurriak intentsitate eta maila ezberdinekin aplika daitezkeela.

Horiek horrela, lanaldia eteteko edo murrizteko neurriak aplikatzen jarraitu behar da enpresetan, baldin eta 22.1 artikuluan adierazita dauden eta desagertu ez diren murrizketen edo «jarduera-galeren» ondorioz oraindik ere jarduera berreskuratu ezinean badabilta.

Ezinbesteko kasuek iraunaldi hau izango dute: aipatutako manuan deskribatuta dauden eta enpresen jarduera berriz hastea eragozten duten arrazoiek ukitutako denbora-tartea, arrazoiek irauten duten bitartean, eta, hasiera batean, 2020ko ekainaren 30era arte.

Beraz, COVID-19arekin lotutako ezinbesteko kasu partzialetan egongo dira martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikulua araberako baimendutako aldi baterako enplegu-erregulazio espedienteak duten enpresak eta entitateak; hain zuzen ere, manu horretan deskribatutako arrazoiek (zeinengatik malgutasun-neurriak aplikatu baitziren, hala nola etete-neurriak edo lanaldi-murrizketak) jarduera partzialki berreskuratzeko aukera ematen duten unetik 2020ko ekainaren 30era arte.

Enpresa eta entitate horiek ukitutako langileak berrartzen hasiko dira, jarduera garatzeko beharrezkoa den neurrian, eta doikuntzak, lehenespenez, lanaldi-murrizketen bidez egingo dituzte.

Helburua da lanaldi-murrizketen hautabidea bultzatzea, aukera horri esker langileek eragin ekonomiko txikiagoa jasango baitute eta enpresek produktuen eta zerbitzuen eskaintzari eta eskaerari pixkanaka erantzun ahal izango baitute, betiere jarduerak eta pertsonal-egiturak ahalbidetzen duten neurrian. Era berean, horrek aukera emango du lan-denbora hobeto kudeatzeko eta esposizio-denborak murrizteko, bat etorritik agintari publikoek COVID-19aren prebalentziari buruz emandako informazio eguneratuarekin.

Beraz, eskema martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuari dagokiona da, eta han jasotako aparteko neurriak eta arrazoiak mantentzen ditu. Aukera ematen du, gainera, hasieran agertu ziren behar guztiei modu dinamikoan erantzuteko, eta erantzuteari uzteko, jadanik ez daudenean enpresaren jarduerara eta plantillara lotuta. Hori guztia, prozedura-baldintza berriak eta nekezak inposatu gabe.

Horrela, enpresek beren jarduera osoa edo zati bat berreskura dezakete, baldin eta adierazitako arrazoiengatik langileak beren zereginetara itzultzen badira guztiz edo partzialki, enpresa-jarduera eten behar izan zen edo konfinamendua zorrotzago bete behar zen une batean hartutako salbuespenezko neurriei uko egin edo neurri horiek aldatu ondoren. Horretarako, ordea, baldintza bat bete behar dute enpresek: lan-agintaritza eskudunari aldezturik jakinarazi behar diote neurriei guztiz uko egin dietela, eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari, berriz, jakinaraziko dizkiote ukitutako pertsona guztiei edo batzuei neurria aplikatzeari utzi izanarekin zerikusia duten aldaketak.

Bestalde, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik ekainaren 30era arte arrazoi objektiboak, ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak eta ekoizpenekoak direla eta lanaldia eteteko edo murrizteko neurriak aplikatzen hasten diren enpresei martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikulua aplikatuko zaie.

Langileen kalterako izan daitezkeen edo haien babesgabetasuna eragin dezaketen alferrikako geldiarazpenak saiheste aldera, espresuki xedatzen da lanaldia murrizteko edo kontratuak eteteko neurrien ondorioak atzera eraman ahal izango direla, aurretikoak diren ezinbesteko kasuetako espedienteen amaiera-datara.

Errege lege-dekretu honetan aurreikusitako egoeretan, langabezia-babesaren arloko aparteko neurriak aplikatzen jarraituko da, eta kotizazioaren arloko aparteko neurri berriak ezarriko dira.

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan ezarritako aparteko neurriei lotutako langabezia-babesaren arloko neurriei dagokienez –errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera aplikatuko direnak barne–, eta 1. eta 2. artikuluetan deskribatutako berezitasunekin, mantendu egingo dira, ekainaren 30era arte, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25. artikulua 1. apartatutik 5.era bitartekoetan aurreikusitako berezitasun guztiak.

Horrez gainera, enpresen jarduera berreskuratzeari eta ahalmen ekonomikoaren jasangarritasunaren artean beharrezkoa den oreka gordez, ezinbesteko kasuetako espedientei salbuespenak aplikatuko zaizkie kuotetan. Salbuespenen irismena ezberdina izango da, enpresa ezinbesteko kasu erabatekoan edo partzialean dagoen, eta salbuesitako den ehunekoa ere ezberdina izango da, jarduerari berrekin zaion edo lanaldia eteteko edo murrizteko neurriak partzialki mantendu diren. Helburua, beraz, trantsizio egoki bat ahalbidetzea da, enpresa-jarduera pixkanaka berreskuratzeko aukera emango duena eta

jarduera ekonomiko orokorraren suspertzearekin bat etorri garatuko dena, horretarako behar den pizgarria izanda.

Azkenik, bi xedapen gehigarri aurreikusten dira: lehenengoan, Gobernuari ahalmena ematen zaio ezinbesteko kasu erabatekoetan eta partzialetan lanaldia eteteko eta murrizteko neurriak luza ditzan –Ministro Kontseiluaren akordio baten bidez luzatu ere–, baldin eta osasun-arrazoiei lotutako jarduera-murrizketek irauten badute; eta bigarren xedapen gehigarriaren bidez, berriz, Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea sortzen da.

Arrazionaltasun ekonomikoko neurriez gain gizarte-arrazionaltasuneko neurriak ere hartu behar dira, enplegua babesteko neurri osagarriek indarrean jarraitu behar baitute; izan ere, funtsezkoak dira egonkortasuna bermatzeko eta kanpo-malgutasun kuantitatibo handiaren ondorioak saihesteko –kaleratzeak eta lanpostuen suntsiketa–.

Bestalde, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako enplegu-babesari dagokionez, arau honetan jasotako aldaketaren bidez zehazten dira, eremu subjektiboan eta objektiboan, harekin lotutako neurriak eta ez-betetzearen ondorioak, kontuan hartuta sektore guztien ezaugarri espezifikoak eta aplikatu beharreko lan-araudia eta, bereziki, enplegu-aldakortasun edo -urtarokotasun handia duten enpresen berezitasunak.

Errege lege-dekretu honek bost artikulua, bi xedapen gehigarri eta hiru azken xedapen ditu.

IV

Errege lege-dekretu honek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129. artikuluan jasotzen dituen erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Hala, xedapenak erantzuna ematen dio COVID-19aren ondoriozko aparteko larrialdi-egoeraren eragin kontrolgabe eta konponezina minimizatzeko beharrari, bai jarduera ekonomikoari, bai enpleguari eta bai langileek eskura ditzaketen baliabideei dagokienez. Asmoa da kalteberatasun- eta babesgabetasun-egoerak saihestea.

Gainera, efikaza eta proportzionala da: bere helburua lortzeko behar-beharrezkoak diren alderdiak baino ez ditu arautzen, eta aurrez azaldutako aldi baterako eta aparteko egoerak irauten duen bitartean baino ez ditu sortuko ondorioak. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen du, bat baitator gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Eta gardentasunaren printzipioa ere betetzen du; izan ere, argi eta garbi zehazten du zein den bere asmoa, eta azalpena ematen du. Beste alde batetik, ez dira egin herritarrek parte hartzeko izapideak, 50/1997 Legeak 26. artikuluan ezartzen dituenak, artikulua horren 11. apartatuan errege lege-dekretuetarako ezartzen den salbuespenari helduta.

Azkenik, koherentea da gainerako ordenamendu juridiko nazionalarekin, eta efizientzia-printzipioa betetzen du, hura aplikatzeak ez baitu ezartzen behar ez den administrazio-kargarik edo karga osagarririk.

V

Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua aparteko eta presako beharrezana dagoen egoerarako xedatzen duen aukerari dagokionez, errege lege-dekretu honen edukia arrazoi objektiboetan, egokitasun politikoan eta aparteko presan oinarritzen da –besteak beste, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiren ondorioz oraindik amaitu ez den salbuespeneko egoera larri–, eta horrek ezinbesteko egiten du erantzun egokia ematea lan-eremuan planteatzen diren premiei.

Konstituzioaren 86. artikulua araberak, Gobernuak errege lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presako beharrezana» dagoenean, baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarriko erakundeentzako antolamenduan, ez Konstituzioaren I. titulua arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren araberak, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria; 68/2007 epaia, 10. oinarria,

eta 137/2011 epaia, 7. oinarria), presako legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean –esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentariorako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan–, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Funtsean, errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako beharrizana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkie (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3 oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa), halako eran non erantzun egokia emango baita enpresen jardura ekonomikoa eta ekoizpena berriro bere onera ekartzeko, segurtasun juridikoa bermatzeko eta deskribatutako egoeraren aurrean kaltebera izan daitezkeen taldeak babesteko –aparteko eta presako ezaugarriek definitzen dituzte–.

Azaldutako arrazoi guztiek justifikatzen dute, zabal eta arrazoituta, arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa). Bestalde, beharrezkoa den lotura dago azaldutako urgentziatzko egoeraren eta horri aurre egiteko hartutako neurri zehatzaren artean; beraz, ez da egon adierazitako konstituzio-tresnaren abusuzko erabilerarik edo erabilera arbitrariorik.

Laburbilduta, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrietan aparteko eta presako beharrizanaren inguruabarrak gertatzen dira, Konstituzioaren 86. artikulua arautzen duen bezala. Gainera, lortu nahi diren helburuak ezin dira lortu lege bat presako prozeduraren bidez izapidetuta.

Halaber, errege lege-dekretu honek ez du eraginik edukiko Estatuaren oinarrizko erakundearen antolamenduan, ez Espainiako Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Errege-lege dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.7 eta 149.1.17 artikuluetan ezarritakoaren babesean ematen da, zeinez Estuari esleitzen baitzaizkie lan-legegintzaren gaineko eta Gizarte Segurantzaren oinarrizko legegintzaren eta araubide ekonomikoaren gaineko eskumen eskusiboak, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoko organoen ardura izatea lege horiek betearaztea.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimena baliatuz, Lan eta Gizarte Ekonomiako ministroaren eta Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioen ministroaren proposamenari jarraikiz, eta Ministro Kontseiluak 2020ko maiatzaren 12ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan jasotako arrazoiengan oinarrituta dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei deskonfinamenduan aplikatuko zaizkien berezitasunak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, COVID-19arekin lotutako ezinbesteko kasu erabatekoan egoten jarraituko dute martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea duten enpresa eta entitateek, baldin eta manu horretan bildutako arrazoiak jardura berriz hasia eragozten badiete; ezinbesteko kasu erabatekoan egongo dira arrazoi horiek irauten duten bitartean, eta gehienez ere 2020ko ekainaren 30era arte.

2. Oostera, COVID-19arekin lotutako ezinbesteko kasu partzialen egongo dira martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan arabera baimendutako

aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea duten enpresak eta entitateak, manu horretan bildutako arrazoiek jarduera partzialki berreskuratzea ahalbidetzen duten unetik 2020ko ekainaren 30era arte.

Enpresa eta entitate horiek aldi baterako enplegu-erregulazioko neurrien eraginpean dauden langileak berrartzen hasiko dira, jarduera garatzeko beharrezkoa den neurrian, eta doikuntzak, lehenespenez, lanaldi-murrizketen bidez egingo dituzte.

3. Artikulu honetan aipatzen diren enpresek eta entitateek lan-agintaritzari jakinarazi beharko diote, hala badagokio, baimendutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteari uko egin diotela guztiz; horretarako, 15 eguneko epea izango dute, ukoaren ondorio-datatik aurrera.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, enpresa eta entitate horiek uko egiten badiete aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei, edo, hala badagokio, espedienteak aldatzeagatik prestazioen ordainketa eten edo erregularizatu nahi badute, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari alde aurretik jakinarazi behar diote zer aldatu den langabezia-babesa eskuratzeko hasierako eskaera kolektiboan jasotako datuei dagokienez.

Dena dela, enpresaren jarduerari eragiten dioten murrizketa-neurriak malgutu direlako langileak lanera itzul daitezkeenean, enpresa eta entitate horiek Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinarazi behar dizkiote ukitutako pertsona guztiei edo batzuei neurria aplikatzeari utzi izanarekin zerikusia duten aldaketak –pertsona kopuruari zein banakako lanaldiaren jarduera partzialaren ehunekoari dagozkionak–.

2. artikulua. *Deskonfinamenduaren ondoren jakinarazi diren eta arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak eta ekoizpenekoak direla-eta abiarazi diren lanaldia eteteko eta murrizteko prozedurak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren eta 2020ko ekainaren 30era arte arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduko eta ekoizpenekoetan oinarrituta abiarazten diren aldi baterako enplegu-erregulazioko prozedurei martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikulua aplikatuko zaie, manu honetako berezitasunekin.

2. Espediente horiek izapidetzen hasi ahal izango da, 1. artikuluan aipatutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bat indarrean dagoen bitartean.

3. Baldin eta arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak edo ekoizpenekoak direla-eta egin behar den aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea abiarazten bada amaituta dagoenean martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitako arrazoietan oinarrituta dagoen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea, lehenengoaren ondorio-data atzera eramango da bigarrenaren amaiera-datara.

4. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean indarrean dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak enpresaren azken komunikazioan aurreikusitako baldintzetan aplikatzen jarraituko dira, han aipatutako epea agortu arte.

3. artikulua. *Langabezia-babesaren arloko aparteko neurriak.*

1. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25. artikuluan 1. apartatutik 5.era bitartean aurreikusita dauden langabezia-babesaren arloko neurriak 2020ko ekainaren 30era arte aplikatuko dira.

2. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.6 artikuluan araututako langabezia-babesaren arloko aparteko neurriak 2020ko abenduaren 31ra arte aplikatuko dira.

4. artikulua. *1. artikuluan araututako neurriekin lotuta dauden kotizazioaren arloko aparteko neurriak.*

1. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zenbait ordainketa egitetik salbuetsiko ditu 1.1 artikuluan adierazita dauden enpresak eta entitateak, 2020ko maiatzean eta ekainean sortutako kotizazioei dagokienez, baldin eta enpresak edo entitateak, 2020ko

otsailaren 29an, berrogeita hamar langile baino gutxiago –edo horiekin parekatuak– bazituen alta emanda Gizarte Segurantzaren; hain zuzen ere, honako hauek ordaintzetik salbuetsita geratuko dira: Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 273.2 artikuluan aurreikusita dagoen enpresa-ekarpena (testu bategina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta baterako bilketaren kuotak. Enpresak edo entitateak berrogeita hamar langile edo gehiago –edo horiekin parekatuak– bazituen alta emanda Gizarte Segurantzaren, kotizatzeke betebeharraren salbuespenak enpresa-ekarpenaren % 75 egingo du.

2. Xedapen honen 1.2 artikuluan aipatzen diren enpresak eta entitateak salbuetsita egongo dira Gizarte Segurantzaren kotizazioari egin beharreko enpresa-ekarpena eta baterako bilketaren kontzeptuak ordaintzetik, honako ehuneko eta baldintza hauetan:

a) Ukoaren ondorio-datatik aurrera lanera itzuli diren langileei dagokienez eta itzulera-egunetik lan egindako aldiei eta lanaldi-ehunekoei dagokienez, 2020ko maiatzean sortutako enpresa-ekarpenaren % 85 salbuetsiko da, eta 2020ko ekainean sortutako enpresa-ekarpenaren % 70, baldin eta enpresak berrogeita hamar langile baino gutxiago –edo horiekin parekatuak– bazituen alta emanda Gizarte Segurantzaren 2020ko otsailaren 29an. Data horretan enpresak berrogeita hamar langile edo gehiago –edo horiekin parekatuak– bazituen alta-egoeran, 2020ko maiatzean sortutako enpresa-ekarpenaren % 60 salbuetsiko da, eta 2020ko ekainean sortutako enpresa-ekarpenaren % 45.

b) Ukoaren ondorio-datatik aurrera jarduera etenda jarraitzen duten enpresako langileei dagokienez eta etenda dituzten aldiei eta lanaldi-ehunekoei dagokienez, 2020ko maiatzean sortutako enpresa-ekarpenaren % 60 salbuetsiko da, eta 2020ko ekainean sortutako enpresa-ekarpenaren % 45, baldin eta enpresak berrogeita hamar langile baino gutxiago –edo horiekin parekatuak– bazituen alta emanda Gizarte Segurantzaren 2020ko otsailaren 29an. Data horretan enpresak berrogeita hamar langile edo gehiago –edo horiekin parekatuak– bazituen alta-egoeran, 2020ko maiatzean sortutako enpresa-ekarpenaren % 45 salbuetsiko da, eta 2020ko ekainean sortutako enpresa-ekarpenaren % 30. Halakoetan, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 273.2 artikuluan aurreikusitako enpresa-ekarpenari aplikatuko zaio salbuespena (testu bategina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zuen), bai eta baterako bilketaren kuotei ere.

3. Kotizazioko salbuespenak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak aplikatuko ditu. Eskaera, ordea, enpresak egin behar du, aldezturik ezinbesteko kasu erabatekoaren edo partzialaren berri emanda, ukitutako langileak nor diren adierazita eta etenaldia edo lanaldi-murrizketaren aldia zehaztuta.

Salbuespena aplikatu ahal izateko, jakinarazpen hori kotizazioko kontu-kode bakoitzeko egin behar da, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, zeina kuota-likidazioaren kalkulua eskatu baino lehen aurkeztu beharko baita Gizarte Segurantzaren arloan datuak bitarteko elektronikoen igortzeko sistema erabiliz (Red sistema, martxoaren 26ko ESS/484/2013 Aginduak arautua).

4. Kuoten salbuespenak kontrolatzeko, aski izango da egiaztatzea Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak langabezia-prestazioa onartu duela dagokion aldirako.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak behar diren komunikazio-sistemak ezarri ahal izango ditu Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarekin, erantzukizunpeko adierazpenen edukia eta langabezia-prestazioak baliatzeko aldiak haren datu-baseekin erkatzeko.

5. Artikulu honetan azaldutako kotizazio-salbuespenek ez dute eraginik izango langileengan; alegia, salbuespena aplikatzen den aldia benetan kotizatutakotzat hartuko da ondorio guztietarako, eta ez da aplikatuko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 20. artikuluan ezarrita dagoena.

6. Artikulu honetan araututako salbuespenak hauen kontura izango dira: Gizarte Segurantzaren aurrekontuen kontura, enpresek gertakari arruntengatik egiten duten ekarpenaren kasuan; mutua laguntzaileen kontura, enpresek gertakari profesionalengatik egiten duten ekarpenaren kasuan; Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren kontura, enpresek langabeziarako eta lanbide-prestakuntzarako egiten duten ekarpenaren kasuan;

eta Soldatak Bermatzeko Funtsaren kontura, prestazioak finantzatzeko egiten dituzten ekarpenen kasuan.

5. artikulua. *Dibidenduen banaketarekin eta gardentasun fiskalarekin lotutako mugak.*

1. Enpresa edo entitate batek indarrean dagoen araudiaren arabera paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralde batean badauka bere egoitza fiskala, ezin izango du errege lege-dekretu honen 1. artikuluan araututako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienterik baliatu.

2. Errege lege-dekretu honen 1. artikuluan araututako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak baliatzen dituzten merkataritza-sozietateek edo beste pertsona juridiko batzuek horietara bideratutako baliabide publikoak erabiltzen badituzte, ezin izango dituzte banatu aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak aplikatzen diren zerga-ekitaldiari dagozkion dibidenduak, non eta Gizarte Segurantzako kuotetan aplikatu zaien salbuespenaren zenbatekoa alde aurretik ordaintzen ez duten.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuz sozietateak dibidenduak banatzen ez dituen ekitaldia ez da kontuan hartuko bazkideek sozietatea uzteko duten eskubidea baliatzearen ondoretarako; eskubide hori Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 348 bis artikuluan 1. apartatuan aurreikusita dago (testu bategina uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Dibidenduak banatzeko muga hori ez zaie aplikatuko 2020ko otsailaren 29an Gizarte Segurantzaren berrogeita hamar langile baino gutxiago –edo horiekin parekatuak– alta emanda zituzten entitateei.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitako arrazoian oinarrituta dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak eta langabezia-babesaren eta kotizazioaren arloko aparteko neurriak luzatzea.*

1. Ministro Kontseiluak erabaki baten bidez hala onartuz gero, 1. artikuluan aipatzen diren enplegu-erregulazioko espedienteak luza daitezke, baldin eta 2020ko ekainaren 30ean osasun-arrazoiei lotutako jarduera-murrizketek irauten badute.

2. Erabaki horretan ezar daiteke, halaber, 4. artikuluan araututako salbuespenak luzatzea, edo arrazoi objektiboetan oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetara zabaltzea, eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.1 artikuluan aurreikusita dauden langabezia-babeseko neurriak luzatzea ere bai, han zehaztutako aldiak eta ehunekoak betez.

Bigarren xedapen gehigarria. *Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea.*

1. Deskonfinamendu-prozesuaren Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea sortzen da; horko kideak izendatzeaz honako hauek arduratuko dira: Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa; Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioa; Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioa (CEOE); Espainiako Enpresa Txiki eta Ertainen Konfederazioa (CEPYME), eta ordezkaritza handieneko erakunde sindikalak –Langile Komisioak (CCOO) eta Langileen Batasun Orokorra (UGT)–.

2. Batzordearen ohiko bilkurak hilabete bakoitzeko bigarren asteazkenean egingo dira, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak deialdia egin ondoren; bilkura bereziak, berriz, batzordea osatzen duten lau erakundeetatik hiruk eskatzen duten bakoitzean egingo dira.

3. Laneko Hiruko Jarraipen Batzordearen eginkizun nagusiak hauek izango dira: salbuespen leunduaren fasean hartzen ari diren lan-arloko neurrien jarraipena egitea; erakunde batzordekideek eta Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak gaiari buruz bildutako datuak eta informazioa trukitzea, eta Ministerioak edo erakunde batzordekideek proposatzen dituzten neurriak mahaigaineratzea eta eztabaidatzea.

Edozein kasutan, lehenengo xedapen gehigarrian jasotako neurriak hartu aurretik eta behar besteko aurrerapenarekin kontsultatu behar zaio Batzordeari.

Azken xedapenetako lehena. 8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena.

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua honela aldatzen da:

Bat. Honela geratzen da idatzita 24. artikulua 1. apartatua:

«1. Xedapen honek 22. artikuluan definitutakoaren arabera COVID-19arekin lotutako ezinbesteko kasu izateagatik baimendu diren kontratu-eteteen eta lanaldimurrizketen espedienteetan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zenbait ordainketa egitetik salbuetsiko du enpresa, 2020ko martxoan eta apirilean, baldin eta enpresak, 2020ko otsailaren 29an, 50 langile baino gutxiago –edo besteren konturako langileekin parekatuak– bazituen alta emanda Gizarte Segurantzaren zuzen erantzunaren, honako hauek ordaintzetik salbuetsita geratuko da enpresa: Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 273.2 artikuluan aurreikusita dagoen enpresa-ekarpena (testu bategina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta baterako bilketaren kuotak. Enpresak 50 langile edo gehiago –edo besteren konturako langileekin parekatuak– bazituen alta emanda Gizarte Segurantzaren, kotizatze bidezko betebeharraren salbuespenak enpresa-ekarpenaren % 75 egingo du».

Bi. 24. artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio; hona:

«5. Artikulu honetan araututako salbuespenak hauen kontura izango dira: Gizarte Segurantzaren aurrekontuen kontura, enpresek gertakari arruntengatik egiten duten ekarpenaren kasuan; mutua laguntzaileen kontura, enpresek gertakari profesionalengatik egiten duten ekarpenaren kasuan; Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren kontura, enpresek langabeziarako eta lanbide-prestakuntzarako egiten duten ekarpenaren kasuan; eta Soldadak Bermatzeko Funtsaren kontura, prestazioak finantzatzeko egiten dituzten ekarpenen kasuan».

Hiru. Honela geratzen da idatzita seigarren xedapen gehigarria:

«Seigarren xedapen gehigarria. *Enplegua babestea*.

1. Errege lege-dekretu honen 22. artikuluan lan-arlorako aurreikusitako aparteko neurriez baliatu ahal izateko, sei hilabeteko epean enpleguari eusteko konpromisoa hartu beharko du enpresak, jarduerari berrekiten zaion egunetik zenbatzen hasita; hau da, hitzemango du espedienteak ukitutako pertsonak benetan lanera itzuliko direla, nahiz eta itzulera partziala izan edo plantillaren zati bati bakarrik eragin.

2. Konpromiso hori ez-betetzat joko da, halako espediente batek ukitutako edonor kaleratzen bada edo kontratuak azkentzen badira.

Konpromiso hori ez da ez-betetzat joko, lan-kontratua azkentzen bada bidezkotzat deklaraturako diziplinazko kaleratzeagatik edo langilearen dimisioagatik, heriotzagatik, erretiroagatik edo ezintasun iraunkor osoagatik, absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik, ezta aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen deitzeaz ere, horrek ez badakar berekin kaleratzea, baizik eta kontratua etetea. Zehazki, aldi baterako kontratuen kasuan, enpleguari eusteko konpromisoa ez da ez-betetzat joko kontratua azkentzen denean hitzartutako denbora amaitzeagatik edo kontratuaren objektu den obra edo zerbitzua egiteagatik, edo kontratazioaren objektu den jarduera berehala egin ezin denean.

3. Enpleguari eusteko konpromisoa baloratzeko, aintzat hartuko dira sektore guztien ezaugarri espezifikoak eta aplikatu beharreko lan-araudia, eta, bereziki, enplegu-aldakortasun edo -urtarokotasun handia duten enpresen berezitasunak.

4. Enpleguari eusteko konpromisoa ez da aplikatuko Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 5.2 artikulua arabera hartzekodunen konkurtsora jotzeko arriskua duten enpreetan.

5. Konpromiso hori betetzen ez duten enpresek salbuetsi zaien kotizazio-zenbateko osoa itzuli beharko dute, eta errenergua eta berandutze-interesak ordaindu beharko dituzte, Gizarte Segurantzaren arloko bilketa-arauetan ezarritakoaren arabera; ordainketa egin baino lehen, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak ez-betetzea egiaztatuko du, horretarako beharrezkoak diren jarduketak eginez, eta itzuli behar diren zenbatekoak zehaztuko ditu».

Azken xedapenetako bigarrena. *9/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea, martxoaren 27koa, Lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19aren ondorioak arintzeko.*

Honela geratzen da idatzita martxoaren 27ko 9/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako hirugarrena (9/2020 Errege Lege Dekretua, Lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19aren ondorioak arintzeko).

«Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean jartzea eta indarraldia.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaritzen duen alarma-egoeraren eta beraren luzapenen iraunaldi osoan egongo da indarrean.

2. eta 5. artikulua 2020ko ekainaren 30era arte egongo dira indarrean».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Madrilén, 2020ko maiatzaren 12an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN